

Kolorearen indarra hormetan

Erakusketa du Alatz Lopezek ▶ 6



JOXE MARI OLARRA ▶ BATASUNA-KO KIDEA

«Euskal gatazkaren korapiloak askatzeko garaia da»

TOLOSA-VILLABONA ▶ Eskaintza berria aste honetan azalduko dute

IREKIA ▶ Alderdi guztietakoentzat egiten dute deialdi irekia ▶ 2

TOLOSA ▶

Alborg-eko puntuak aztertuko dituzte gaur

Agenda 21eko Aholku Batzordearen bilera izango dute ▶ 3

TOLOSA ▶

Bolada txarra hautsi du Laskorainek

Altamira Bar Txutxiri 7-2 irabazi dio, hiru porroten ondoren ▶ 4

LEITZA ▶

Orientazio ikastaroa izango da asteburuan

Biharko eman behar dute izena interesa dutenek ▶ 7



Udalaren eta Kontseiluaren arteko elkarlan hitzarmena

VILLABONA ▶ Udalak eta Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak elkarlan hitzarmena sinatu zuten atzo. Bakartxo Tejeria alkatea eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia —argazkian— izan ziren akordioa sinatu zutenak herriko udaletxean. Lankidetzeta hitzarmen honen ondorioz, 3.000 euroko

ekarpena egin dio Udalak Kontseiluari. Honek aholkularitza lana egiten jarraituko du Tolosaldeko Bai Euskarari Akordioaren dinamizazioan eta Villabonako Euskara Biziberritzeko Planean. Herriko eragile batzuk hasi dira Bai Euskarari ziurtagiria jasotzen eta beste batzuk bidean eta ahaleginetan dira. IÑIGO TERRADILLOS ▶ 5

Eskuratu argazki-kamera, melodia polifonikoak eta koloretako pantaila dituen



Txartelako Siemens Mc60* bat

39€

100€
-ko saldoarekin**

edo...



Kontratuko Siemens Cx65 bat

50€

Siemens A65 **0€**
Kontratuko hainbat telefono aukeratzeko daude

Datavi
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK

San Francisco, 19 20400 Tolosa
Tel: 943-698126 Fax: 943-698202

Euskaltel
Banatzaile Ofiziala

*Kopie 3 telefono aukeratzeko
**Euskarari hitzua edo erabazteko hitzarmenak

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldea. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegietia. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santamaria, I. Nafarroa etorb. 2 (Tolosa). 943 654610.
 Larraia, M.I. Elbarren 95 (Leitza). 112.

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info

Anoetaldea. 687 41 00 22
 anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info

Leitza. 687 41 01 18.
 leitza@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko. 943 69 19 33.

Abeltzaina. Pertsona bat behar da lau orduz esne behi ikuilu batean lanean aritzeko. Beharrezkoa da autoa eta esperientzia. Interesatuak deitu 665 73 33 56 telefonora.

SALGAI

Soinu ekipoa. Soinu ekipoa osoa salgai. Argibideetarako, deitu: 943 67 48 06 / 943 11 77 38.

Etxebizitza. Etxea salgai Tolosako Alde Zaharrean. 90 m². Partikularra. Telefona: 943 67 62 14.

JOSE MARI OLARRA ▶ BATASUNA-KO KIDEA

«Korapiloak askatzeko garaia da»

Gaur eta larunbatean aurkeztuko du Batasunak Villabonan eta Tolosan 'Orain herria, orain bakea' eskaintza

JOXEMI SAIZAR

Gaur Villabonako Kultur Exean 20:00etan eta datorren larunbatean Tolosako Leidor zinemaren 19:00etan aurkeztuko du Batasunak *Orain herria, orain bakea* proposamena. Gaur Juan Joxe Petrikorena izango da hizlari eta larunbatean, Pernando Barrena. Gai honen inguruan aritu da HITZA Batasunako Joxe Mari Olarra tolosarrarekin.

Zer izango da ekitaldi hau?

Gure asmoa zuzenean ahalik eta jende gehienarengana iristea da. 30.000 lagunengana iritsi nahi genuke. Herri askotan ari gara horrelako ekitaldiak egiten. Tolosakoa eskualde mailakoa izango da. Deialdi irekia da denentzat, baita deskonfiantza duten EAJ, EA, PSE-EE eta EBko oinarriko jendearentzat.

Zergatik dator orain proposamen hau?

Egungo egoerak gatazka konpontzeko baldintza berriak sortu dituelako. Gainera abantaila politikoa dute ahalegin horiek, herriaren nahiari erantzutea. Alderdi guztien botumaleek bakea eta konponketa nahi dute. Bakea da orain lehentasuna. Ezker abertzalearen ardura da gatazka kaletik atera eta mahaira eramatea. Horretarako oztupoak gainditzeko denon konpromisoa behar da. Batasuna horretarako prest dago. Formula berriak bilatu behar dira elkarrizketan oinarrituz. Horrela lortutako akordioak estatus politiko berria ekarriko du. Eta akordioa eraginkorra izateko herriari kontsulta egin behar zaio eta bere ondorioak bermatu behar dituzte alde guztiak. Inork ez du egia osoa, denok egin behar harko ditugu kontzesioak. Korapiloak askatzeko garaia da.

Zer egin behar da euskal gatazka konpontzeko?

Hor bi oinarri aipatzen ditugu: elkarrizketa eta akordioa. Prozesu bat behar da, ez dago laburbiderik. Alde desberdinek prozesu bat jarri behar dute martxan bakea eraikitzeko, presarik gabe eta seriotasun osoz.

Batasunak zein konpromiso hartzen ditu horretarako?

JOXEMI SAIZAR

DEIALDIA

«Tolosako ekitaldia eskualde mailakoa izango da; deialdi irekia da denentzat, alderdi guztietakoentzat»

ETA

«ETak prozesu honekin bat egingo duela ziur nago, borondate guztia erakutsi du eta aurrera egingo du»

Elkarrizketa ezinbestekoa da irtenbide demokratikoa eta adostua emateko gatazka, baina hori ez da nahikoa, konpromisoak ere planteatu behar dira. Batasunak zazpi konpromiso hartzen ditu, beste eragileei ere gauza bera eskatuz: gatazkaren sustraletara jotzea eta irtenbide demokratikoa aurkitzea; euskal herritarren hitza errespetatzea; euskal herritarren hitz ematea era bakez eta euskal Herrian eraiki behar diren neurriak hartzea; akordioak sentisibillitate politiko ezberdinen atxekimendua eta errespetoa lortzea; desberdintasunak era baketsu eta demokratikoki konpontzea; bide politiko eta demokratikoen erabilera eskusiboak, proiektu politiko guztiak, muga eta murrizketarik gabe, ahalbilduz; eta Euskal Herrian eraiki beharreko akordioan Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta NBERen Eskubide Zi-

bil, Politiko eta Ekonomikoen itunak txertatzea.

ETak bat egingo al du prozesu honekin?

Oso jarrera garbia erakutsi du eta hemendik aurrera prozesu honekin bat egingo duela ziur nago. Behar den guztia eta borondate guztia erakutsi du eta aurrera egingo du.

Proposamena Donostiako Belodromoan aurkeztu ondoren ETak bere ekintzekin jarraitu du. Nola ulertzen da hori?

Prozesua hasi al da? Zerbait bultzatzeko aurrera martxan jarri eta gero praktikan demostratu behar da. Herri honetan gehiegi hitz egin eta gutxiegi egiten da. Aurrerapauso hauek ETA ahulago dagoelako ematen al dira? Ikuspegi hori oso larria da. Azken aste hauetan ETA berriro ere zerbait baino gehiago ari da demostratzen, ekintza kontrolatuak ari da burutzen nonahi. Honek zerbait demostratzen du.

ANOETA-IRURA ▶

Xakearen txokoa izena eman daiteke etzi arte

Xakearen txokoa urtarrietik aurrera martxan jarriko dute bi udalek. Izena eman nahi dutenek ostirala bitarte dute epea bi udaletxeetan. Azaroran hasi eta larunbat honetan bukatuko den ikastaroan 32 haurrek hartu dute parte, 9 Irurako liburutegian (LH 1-3) eta besteak Anoetako udaletxean, bi taldetan banatuta, LH 1-4ko hamabi eta LH 5-6ko beste hamar.



Ikastaroko irudi bat. HITZA

ANOETA ▶

Gabonetako ludotekarako izen-ematea

Abenduaren 27tik 31ra eta urtarrilaren 3tik 5era ludoteka antolatuta du Udalak. Goizeko 11:00etatik 13:00etara izango da ikastolan. HH1etik DBH4rako haur eta gaztetxoentzat da eta doan izango da. Izene-ematea etzi, ostirala, amaitzen da, udaletxean 09:00etatik 13:00etara.

ANOETA ▶

Pinu artifizialak erabiltzeko Udalaren deia

«Gure ingurumenarekiko begirunea plazaratu nahian», Eguberrietako pinu artifizialak erabiltzeko deia egiten du Udalak, zuhaitz naturalak erabili beharrean.

ZIZURKIL ▶

Gabonetan jolasean aritzeko deialdia

1992-2000 urteetako haurrentzat ekitaldiak izango dira abenduaren 27tik urtarrilaren 5era. Izena eman behar da udal bulegoetan hila- ren 21a baino lehen.

KULTURA ▶

Literatura, Kirmen Uriberekin

'10 poema mende berrirako' hitzaldia eskainiko du gaur Kultur Etxean

I. ETXEBESTE

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, literaturaz gozatzeko aukera izango da gaur Kirmen Uribe idazle ondarrutarrarekin Tolosako Kultur Etxeko bigarren solairuan. Izan ere, *10 poema mende berrirako* hitzaldia eskainiko du idazle eta poeta gazteak 20:00etatik aurrera. Jarraian, afari-tertulia egingo dute, gainera.

Euskal filologia amaitu ostean, Literatura konparatua ikas-taraoa egin zuen Uribek Italian. Itzultzaile eta interprete gisa egin du lan, eta gidoiari lanetan ere aritu da, ETBko *Sautre-*

la literatura saioan, besteak beste.

1987an TU-K taldeak musikatu zituen lehenbiziko bere hitzak *Existentzia* izeneko maketan. Hiru urte geroago *Le blist* bilduma kaleratu zuen Josu Aranbarri marrazkilaria-rekin batera; 1987 eta 1990 urteen artean sortutako poemak eta komiki espressionistak bil-tzen zituen proiektu hark.

Bitan jaso du Becerro de Bengoa saiakera saria: lehena 1995ean eman zioten Jon Elordirekin batera idatzi zuen *Lizardi eta erotismoa* saiakera-gatik; bigarrena, 2000an *Zazpi saio, zazpi leiho* lanagatik.

Entseguak, ipuinak, poemak eta komikiak atera ditu Kirmen Uribek han-hemenka, eta hainbat letra idatzi musika taldeentzat: Mikel Urdangarin, Piztiak, PLT, Bide Ertzean, Sagarroi eta beste. *The balde* aldizkarian literatur kontuez arduratzen da. Arabierazko idazleen, aborigenen, AEBetako eta Afrika hegoaldeko idazleen testuak itzuli ditu bertan. Munduan zehar, Raymond Carver, Silvia Plath, Anne Sexton, Manuel Rivas eta Wislawa Szymborskaren poemak euskaratu ditu, adibidez.

Bar Puerto. Bazterreko ahotsak kultur ikuskariaren sortzailea da, Mikel Urdangarin



Kirmen Uribe poeta gaztea. HITZA

eta Josu Eizagirreren laguntzaz, eta *Ekidazu, lehoiek ez dakite biolina jotzen* Kukubiltxo antzerki taldearen lanaren gidoiaren egile. Espainiako Kritika saria jaso zuen 2002an, Birtartean heldu eskutik poesia lanarekin.

KIRMEN URIBE ▶

ARGITALPENAK

- 1996. *Lizardi eta erotismoa* (Alberdania). Jon Elordirekin.
- 1998. *Ekografia* (P. Norte).
- 2001. *Bar Puerto. Bazterreko ahotsak* (Korrika 12) eta *Bitartean heldu eskutik* (Susa).
- 2003. *Ekidazu, lehoiek ez dakite biolina jotzen* (Elkar), *Zaharregia, txikiegia agian* (Gaztelupeko Hotsak) eta *Garmendia eta zaldun beltza* (Elkar).
- 2004. *Ilehoria naiz eta zer?* (Elkar).

SARIAK

- 1995 eta 2000. Becerro de Bengoa saiakera saria.
- 2002. Espainiako Kritika.

AGENDA 21 ▶

Agenda 21eko Aholku Batzordearen bilkura

Gaur egingo dute, 19:30ean, Tolosako udaletxean, Garapen Iraunkorrari begira, Alborg-eko konpromisoak aztertzeko

IRATXE ETXEBESTE

Iraunkortasunerako Biltzar Europarra ospatu zuten joan den ekainean Danimarkan, eta Tolosako alkate Jokin Bildarratzek hartu zuen parte bertan, nola edo hala, udalerriaren Mugikortasun Plana bertako parte-hartzaileei azaltzeko. Bada Tolosako Mugikortasun Plana eredutzat eta abiapuntutzat hartu dute, plan hori Europako udalerrietan ere finkatze-ari begira. Tolosako alkatea Alborg hirian izan zen hori dela eta, eta hauxe dio planaren harira: «Mugikortasun Plana kalitate handikoa da, eta, gainera, hazkunde ekonomiko ardura-tsuaren oinarriak ezin argiago eta zehatzago jasotzen ditu».

Biltzarrean parte hartutako udalerriek Alborg-eko konpromisoak onartu zituzten, eta

urrats erabakiorra zela esan zuten, «garapen ekonomikoa lortzeko proposatzen duen plana bateragarria baita izadiarekiko begirunearekin eta ongizate sozialarekin». Orain, Tolosako Aholku Batzordearen esku dago horren analisisa egitea. IHOBE-ko ordezkariak, udal teknikariak, udalbatzan dauden alderdi politikoetako ordezkariak, gizarte eragileak eta herritarrek osatzen dute Aholku Batzordea.

Hori guztia aintzat hartuta, Tolosako Agenda 21aren Aholku Batzordeak bilera egingo du gaur, 19:30ean, Tolosako udaletxeko areto nagusian, eta *Alborg-eko konpromisoak* izeneko dokumentua aztertuko dute bilkuran. Garapen iraunkorra laguntzen duten printzipioak eta tokian tokiko ekimenak jasota daude aipatutako dokumentu horretan.

Lehenik eta behin, akordioan jasotako oinarriak errespetatuko dituzten tokiko politikak diseinatzea eskatzen zaie idazki hain sinatu dutenei, udalerriko hainbat esparrutan eragin nabarmena dutelako izan. Oinarri horietako batean, esaterako, gobernatzeko moduak ai-

patzen dira: demokrazian denok hartzen omen dugu parte, eta bultzatu beharreko eredu horixe dela dio dokumentuak. Horretarako, gizarteko sektore guztiak nahi adina gogoeta egitera gonbidatu nahi dituzte sinatzaileak, eta, era berean, hartutako erabakiak «arduraz eta gardentasunez» aplikatzea proposatzen dute.

Dokumentuak kontuan hartzen duen beste atal bat iraunkortasunaren aldeko udal kudeaketa da —udal kudeaketa Agenda 21en finkatzea aholkatzen du eta—. Danimarkan hartutako konpromisoen artean, besteak beste, natur baliabideak zaintzea eta horiek zuhurtasunez erabiltzea nabarmendu behar dira; baita kontsumo eta ekoizpen iraunkorraren sustapena ere.

Bestalde, Alborg-eko konpromisoetan ez dute ahaztu «udalerri bizitarako hain garrantzitsua den eta mugikortasunari hain estu loturik dagoen alderdia»: hiriko diseinua. Hori dela eta, hiri plangintzarako plan estrategikoak prestatzeko orduan tokiko gobernuet ematen diete protagonismo osoa: ongizate soziala-

rekin eta izadiaren errespetuarekin batera, garraioaren, osasunaren eta ingurunearen artean dagoen lotura kontuan hartzen duten mugikortasun ereduak ezinbestekotzat jotzen dituzte, horren harira.

Oinarriak eta ekimenak

Natur ingurunea kaltetu gabe enplegua sorraraziko duen tokiko ekonomiak bultzatzea, herri-gune irekiak eta solidarioak sortzea, bakearekiko konpromisoa hartzea eta zuzentasuna eta garapen iraunkorra bultzatzea dokumentuaren beste oinarri batzuk dira. Horrez gain, erronka horiek guztiak arrakastaz erdiesteko bultzatu beharreko ekimenak ere jasotzen ditu, besteak beste.

Alborg-eko konpromisoak izeneko dokumentua sinatzeak edukia kontuan hartzea dakar berarekin, «udaletan jarraitu beharreko kudeaketa eredu diseinatuko duen plana denon artean prestatzea funtsezkoa denez». Bestalde, finkatuta dauden helburuak berrikusi egingo dira noizbehinka, gaurko eta biharko beharaldientzat mundu bizigarriagoa lortzeko egitasmoan «Europako herrialde guztiek aurrera egin dezaten».

KULTURA ▶

Euskalgintzari buruz solasean, Odriozolarekin

Joxe Manuel Odriozola altzotarrak idatzitako azken liburua, *Euskalgintzaren lekukoa*, aitzaki hartuta, Tolosako Udaleko Euskara Batzordeak hitzaldia antolatu du biharko. Odriozola berak, euskara irakasle eta soziolinguistikaren adituak eskainiko du *Euskalgintzako hainbat iritzi* hitzaldia, 19:30etik aurrera, Tolosako Udaleko batzar aretoan.

MENDIA ▶

Etxegarartetik Lizarrustirako irteera igandean

Alpino Uzturre mendi elkar-teak irteera antolatu du igandeko, Etxegarartetik Lizarrustira. Ibilaldian zehar Areatzako (983m.), Intxusburuko (943 m.) eta Txagadigorriko (936m.) gainak igotzeko aukera izango dute mendizaleak, lau ordu eta erdiko ibilian. Pablo Gorosabeletik ir-tengo dira, 08:00etan, eta Lizarrustin lagun arteko bazkaria egingo dute. Izena egoit-ztan eman daiteke.

AHOLKU BATZORDEA

IHOBEko ordezkariak, udal teknikariak eta ordezkari politikoak, herritarrek eta gizarte eragileek osatzen dute



LIZARBI

Kutxa, mahai, aulki etab.

Altzariak • Zurgintza orokorra

Tailakeskuz eginak Zaharkinen herriztatzea

San Esteban auzoa

Tel./Faxa: 943 650 063 • TOLOSA

ARETO FUTBOLA ▶

Bolada txarrari aurre egin dio Laskorainek, 7-4 irabazita

Hiru porroten ondoren, «arnasa hartzeko eta mailaz igotzeko ametsari tinko eusteko» balio izan die horitxoei Altamira Bar Txutxiren aurkako garaipenak

ERREDAKZIOA

7-4 irabazi du asteburu honetan Laskorainek Altamira Bar Txutxi taldearen aurka. Horitxoek garaipena «maiatzeko ura bezala» behar zutela dio Mikel Altuna jokalaria. Aste honetan berak bidali dio partidaren kronika HITZARI; kontakizun berezia, gainera, Mexikotik egina baitago:

«Atlantiko uren gainetik 11.000 metrora eta Mexikoko Guadalajara hiria jomugatzat dudalarik, nire bihotzeko taldearen azken jardunaldiari dagokion kronika idaztera noakizue. Naturak maizteko ura, Euskal Herriak euskara edo Altunak bere printzesa behar duten bezala, laskoraindarek garaipen bat ezinbestekoa zuten hiru porroten bolada ta-

malgarriari buelta eman eta txapelketa honetan bizirik dirautela aldarrikatzeko.

Norgehiagoka aurretik aldarrikatu eta kezkatu ageri ziren horitxoekin artean. Denok genekien partiduaren garrantzia. Final baten atarian arnastu den tensio giroa goraziekin mozteko modukoa zen aldageletan. Gure kapitainak ongi aipatzen zuen moduan, berdin zitzaigun zein talde genuen aurrean, irabazi edo irabazi egin behar genuen.

Gure zutarrietaz oroitu nahi izan genuen hasi baino lehen: euskara, Tolosaldeko jendearekin lan egitea eta Gipuzkoako lehenengo talde bihurtzea. Ordezkatzen dugunaz, alegia, Egizabal entrenatzaileak bere lepokoari muxu bat eman eta partiduari ekin genion.

Laster jaso genituen fruituak, 2 eta 0 aurreratu bainekin markagailuan, nik lehendabizi eta Barriolak ondoren sartutako bi golei esker. Hala ere, bizkaitarrek ez zituzten besoak jaitsi, eta aldageletara joan aurretik binakoa ezartzea lortu zuten, urduritasuna txertatuz gure lerroetan. Bigarren zatian, mahaiko epaileak lan gehiago izan zuen golak markagailura igotzen. Benetako Laskorain ikusi ahal izan genuen, defentsan serio eta kontraerasoan hilkor. Saldias kapitainak bi gol sartu zituen eta Telletxea, Jorjgek eta nik bana. Jorgerena, gainera, begiko erretinan denbora luzez gordeta geratzen den horietakoa. Desagertu zirenak bizkaitarren ateko eskadrako armiarma sareak izan ziren, gure oilartxoaren

ezkerkedak guztiz garbitu baitzuten.

Azkenean 7 eta 4, arnasa hartzeko balio digun garaipen garrantzitsua. Egizabal entrenatzailea, Saldias delegatua eta Amatriain, Alonso, Altuna, Arregi, Barriola, Domentxe, Gil, Saldias, Telletxea eta Zubillaga jokalaria izan ziren emaitza horren arduradunak. Eta baita Berazubira gerturatu zen zalegoa ere, bere txalo eta oiluekin garaipenerako bide malkartsua leuntzen lagundu baitzuten. Mila esker.

2004ko azken jardunaldian Elgoibarri egingo dio bisita Laskorainek. Hiru puntuak lortzea ezinbestekoa da, urtea era egokian amaitu eta oraindik bizirik dirauen Nazional A mailara igotzeko amets hori gauzatu ahal izateko. Zorte on!».

ERAKUSKETA ▶

Sudurrak naturako usain gozoez betetzeko

'Sudur-puntan. Esentzia eta lurrrin naturalak' erakusketa gaurtik Aranburun

L. MONTES

«Bete sudurrak naturaren usain gozoez». Bihar, 12:30ean, zabalduko ditu ateak Tolosako Udalak eta La Caixa Fundazioak antolatutako *Sudur-puntan. Esentzia eta lurrrin naturalak* erakusketa, Aranburu Jauregian. Eta horixe da antolatzaileek herri-tar guztiei egin nahi dieten gonbita.

«Usaimenak gure eguneroko bizitzan daukan protagonismoa berreskuratu» nahi dute erakusketa honekin: «(Zan ere, gaur egun erabat ahazturik dugu zentzumen hori. Hala ere, nekez pasa dezakegu gure bizitza kontzientearen une bakar bat ere gure usaimenak usainen bat antzeman gabe; eguneroko bizitzan guhixtan pasatzen zaigu oharkabearen usain bat edo beste. Gainera, urrutiko oroitzenak gogora ekartzeko zentzumenik ahaltsuena usaimena da, memoriaren garun-zirkuituekin duen erlazioagatik».

60 esentzia, usaintzeko

60 esentzia preziatzeke aukera emango du erakusketak. «Esentzia guztien purutasuna eta garrantzia bermaturik daude, horien prestaketan hainbat adituk parte hartu dute eta».

Gainera, «ikusmenarik gabeko erakusketa denez», braille alfabeto idatzitako testuak ezin falta zitezkeela pentsatu zuten antolatzaileek: «Testu hauetan, zaila izan arren, usainak deskriba zitezkeen hizkera erabiltzen saiatu gara».

Sudur-puntan. Esentzia eta lurrrin naturalak erakusketa hilabetez izango da zabalik, gaurtik 2005eko urtarrilaren 15era arte, hain zuzen ere. Asteartetik igandera bisitatu ahal izango da, Aranburu Jauregian, arratsalde, 17:30etik 20:30era. Gabonak direla eta, dena den, ondorengo egunotan itxita egongo da erakusketa: hilaren 24an, 25ean eta 31n eta urtarrilaren 1ean.

MUSIKA ▶

LEIRE MONTES

Gipuzkoako Belenzaleen Elkartek antolatutako Gabonetako kontzertuan hartuko du parte, etzi, Tolosako Orfeoia. Ignacio Ruiz de Alegriaren zuzendaritzapean eskainiko du emanaldia, Kurasaalean, 19:30ean. Iruñeko Concerto Orkestra, eta Amaia Arberas soprano eta Jesus Garcia Arejula baritono donostiarrak izango dituzte bidelagun emanaldian.

Mariano Ferrer kazetariak egingo du urteroko pregoia aurtengoan; eta, ondoren, musikari eta abeslariaren txanda izango da.

Bi zatiko kontzertua eskaini-

ko dute tolosarrek: lehendabizikoan, Handelen *Mesias*-en zenbait zati interpretatuko dituzte: *Sinfonia*, *The trumpet shall sound* eta *How beautiful*. Ondoren, Bachen *Magnificat*-en beste hainbat atal: *Magnificat anima mea*, *Quia respexit*, *Omnnes generationes*, *Qui a fecit mihi magna*, *Sicut locutus est* eta *Gloria sicut erat in principio*. Bigarren zatian, Gabonetako kantak izango dira entzungai: *Joy to the world*, *Oi Bethleem*, *Noche de Dios*, *Adeste Fideles*, *Oh holy night* eta *White Christmas*.

Hilaren 23an, bestalde, Gabonetako kontzertua eskainiko du Orfeoia etxean, Leidorren.

Etzi, Tolosako Orfeoiaren Gabonetako kontzertua, Donostiako Kurasaalean

Handelen eta Bachen obrak eta Gabonetako kantak interpretatuko dituzte tolosarrek



Iruñeko Concerto Orkestra, Amaia Arberas sopranoa eta Jesus Garcia Arejula izango ditu bidelagun Orfeoia Kurasaalean. J.SAIZAR

hilberriak ▶

eskialak hartzen dira: 19:00ak arte • 687 53 02 58 • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info



Teresa Urbistondo Arroyo (Gabino Ibargurenen alarguna)



Atzo hil zen, 75 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

— Goian bego —

Argi bat itzali da hemen lurrean
berri bat piztu da han, zeru ederrean
beti jarraituko duzu gure bihotzean

Zure bilobak

TOLOSAN, 2004ko abenduaren 15ean

IBARRALDEA ▶

Laguntzaile diplomarako ikastaroa

Kutzazabalek Etxez Etxeko Laguntzaile diploma lortzeko ikastaroak antolatu ditu Bergarako UNEDekin elkarlanean. Ikastaroa urtarrilaren 14an hasiko da, ostiraletan 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 21:00etatik 14:00etara. Matrikula epea abenduaren 18 bitarte izango da Bergarako UNED-en, 943 76 90 33 telefonora deituz.

IBARRA ▶

Txontxo udal ludotekaren zerbitzu bereziak

Eguberrietarako zerbitzu berezia eskainiko du Txontxo Udal ludotekak. Bi eta zortzi urte bitarteko haurrei zuzendua izango da abenduaren 27tik 30 era. Orduetgia, 9:30etik 13:00etara edo 16:30etik 20:00etara izango da, aukeran. Izena emateko epea abenduaren 21a arte luzatu dute eta Uzturpe ikastolan egingo da. 6,50 euro ordaindu behar da pertsonako.

IBARRA ▶

Batzarra izango da gaur Uzturpe ikastolan

Gaur 20:00etan Ibarra Uzturpe ikastolan batzarra egingo da. Lehendakariaren aurkezpena egingo da eta ekonomiaren inguruan ariko dira. Haur eskola, ikastola eta ludotekako azken berriak azalduko dituzte eta baita ikasturte honetakoak ere. Batzorde desberdinetako informazioa zabalduko da, eta azkenik, galderak eta eskeak egin ahaliko dira.

IBARRA ▶

Hitzaldiak eta zinema gaur eta bihar Gaztetxean

Gaztetxearen Kultur Asteareki jarraituz, gaur *Zer nolako herria nahi dugu herritarrok?* izenburupean mahai-ingurua izango da Gaztetxean 19:00etan Hector Espin moderatzaile dela. Bihar, berriaz, AHTak gure ingurunea egingo dituen kalteak eta onurak alderatuko dituzte 19:30ean eta 21:45ean *Generacion robada* filma izango da ikusgai.

IBARRA ▶

Merkatu txikiko ateak zabalik igandea bitartea

Aurreko asteetan bilketa egin eta gero, pasa den igandean jarri zen martxan, urtero legez Ibarra San Bartolome Misio Taldeak antolatzen duen Merkatu Txikia. Hau datorren abenduaren 19a bitarte izango da zabalik 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:30era. Aukera polita bertara gerturatu, zerbitu erosi eta horrela dirua biltzen laguntzeko.

VILLABONA ▶ EUSKARA

Elkarlan hitzarmena sinatu du Udalak Kontseiluarekin

Lankidetzaz hitzarmenaren ondorioz, 3.000 euroko ekarpena egin dio Villabonako Udalak Kontseiluari



Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusia, atzo. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Villabonako Udalak, Tolosaldeko beste hainbat eragilek bezala, euskararen alde lan egiteko nahia eta beharra azaldu du berriro ere. Izan ere, atzo arratsaldean Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekin elkarlan hitzarmena sinatu zuen.

Bakartxo Tejeria Villabonako alkatea eta Xabier Mendigu-

ren Kontseiluko idazkari nagusia izan ziren udaletxeko beste ordezkariekin batera sinadura ekitaldian. Pozik agertu ziren bi aldeak eta bide horretatik lan egiten jarraitzearen garrantzia azpimarratu zuten.

Villabonako Udalean Kontseiluarekin hitzarmena sinatzeko erabakia adostu zen, eta horren ondorioz, 3.000 euroko ekarpena egin dio orain Villabonako Udalak Kontseiluari.

Bertako alkatea, Bakartxo Tejeria gogotsu eta oso gustura ageri zen, eta «hartu zuten erabakia garrantzitsua eta ezinbestekoa» zela eta «euskararekin eta euskararen alde lan egiteko nahia eta asmoa» azaldu zuen, eta honek guztiak herriaren eta herritarren eragina izango zuela ere aipatu zuen atzo arratsaldeko prentsaurrekoan.

Bestalde, hizkuntz normali-

zazioan gizarte eragileen inplikazioa beharrezkoa dela azaldu zuen Xabier Mendigurenek Kontseiluko idazkari nagusiak, baina normalizazio horretan instituzioek ere egin behar garrantzitsua daukatela azpimarratu zuen.

Hitzarmenaren ondorioak

Elkarlanerako hitzarmen horren bidez, Tolosaldeko Bai Euskarari Akordioaren dinamizazioa eta Villabonako Euskara Biziberritzeko Planean aholkularitza lana egiten jarraituko du Kontseiluak.

Hain zuzen ere, Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiarekin uztartuta ari da garatzen Kontseiluaren Bai Euskarari Akordioa Villabonan, eta baita Azpeitian, Ondarroan, Tolosan eta Zestean ere.

Bai Euskarari Akordioaren barruan Villabonako eragile batzuk Bai Euskarari ziurtagiria eskuratzen hasi dira, eta beste hainbat eragile hori lortzeko bidean eta ahaleginetan ari dira. Alde horretatik, oraindik ere, lan handia egiteko dago esparru honetan.

Era berean, Kontseilua Euskal Herri osoan sustatzen ari den Ekintza Planaren barruan, Tolosaldean ere abian jarri da norbanakoen konpromiso-haritze prozesua.

IBARRA ▶

Bederatzi etxebizitza eraikiko dira Argindegin

I. TERRADILLOS

Ibarra Udalak Argindegi 18-20an eraikiko diren 9 udal sustapenerako etxebizitza eta hauei lotutako trasteleku eta garajeak erosteko prozesua arautuko duten baldintza administratiboak onartu ditu.

Udaletxean egingo den etxebizitzak esleitzeko zozketan parte hartu nahi dutenek baldintza batzuk bete beharko dituzte; adinez nagusia izatea edo emantzipatua egotea, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatua egotea, 9.000 euro (ezinduen kasuan 3.000euro) eta 35.100 euro arteko diru sarrerak edukitzea, elkarbizitza unitateko kide guztiek ezin dute etxebizitzarik izan jabetzan aurkeztu aurreko bi urteetan, 36 m²baino gutxiago dituen etxebizitza bat izatea eta ezinduen kasuan mugikortasun urri iraukorra izan beharko dute.

2005eko urtarrilaren 31a da auzketeko epea eta Udaleko Gizarte Zerbitzuetako bulegoan egin beharko da.

ALEGIA ▶ KULTURA



Izenburuak. Erakusgai dauden margolan guztiek euskarazko izenburuak dituzte. O.ESKITXABEL



Tamaina. Tamaina handiko lau lan daude ikusgai. O.ESKITXABEL



Natura. Naturarekin erlazionaturik gaiak ikus daitezke margolan askotan. O.ESKITXABEL



'Collage'. Collage teknika erabiliz egindako pilotaria. O.ESKITXABEL

ALATZ LOPEZ ▶ MARGOLARIA

«Kolorea lantzea dut gustuko; indarra ematen die margolanei»

Atzotik urtarriaren 17a bitarte Alatz Gonzalez muretarraren lanak egongo dira zintzilikatuta jubilatuen tabernan. Guztira nafarraren hamalau lan daude erakusgai.

Tamaina handiko lau margolan daude erakusketan. Txikiak baino esanguratsuagoak al dira?

Margolan handiak egitea gus-

tatzen zait; txikiak, hala ere, errazagoak saltzen dira, merkeagoak direlako.

Zein teknikarekin sentitzen zara erosoan?

Olioarekin eta akrilikoarekin. Collage-a, zeramika... ere erabiltzen ditut, baina beste biak gehiago menperatzen ditut.

Koloreak berebiziko garrantzia du zure lanetan.

Marrakziak baino gehiago kolorea lantzea dut gustuko; indarra ematen die margolanei. Kolore biziak erabiltzen ditut, gainera.

Zein da lan egiteko erabiltzen duzun prozesua?

Pintura automatika dena egiten dut. Mantxak egiten hasten naiz eta inspiratzen didana marrazten hasten naiz; zapiak,



O.ESKITXABEL

errekorteak... margolanaren gainean jarri eta ideiak bilatzen hasten naiz. Beste batzutan ideia pentsatuta izaten dut eta marrazten hasten naiz.

Lan guztiek beren titulua dute. Jendeak margolana ulertzeko al da?

Margolean jasotako ideia titulu batetan laburbiltzen dut. Hala ere, norberak bere interpretazioa egitea gustatzen zait. Eta erakusketa honetan hori gertatzea espero dut; batez ere, margolanak gustatzea gustatuko litzaidake. ◀

iragarki laburrak ▶



Aizarnazabal. Txakolin saila duen 50.000 m²-ko lursaila salgai.

Nekazal ustiapenaren bitartez bi familientzako etxea egiteko aukera.

Anoeta. 125 m² eta garajea duen duplex etxebizitza ederra salgai.

Belautza. 1.060 m²-ko pabilioia salgai; erabat argitsua eta garabiarekin.

Belautza. 225 m²-ko pabilioia alokairuan; erabat argitsua. Ur eta

elektrizitate instalazioa.

Donostia. 104 m²-ko etxebizitza salgai Colon pasealekuan. Ikuspegi zoragarriak eta erabat berritua.

Gaintza (Nafarroa). Berrikuntza behar duen 3 solairuko baserria.

Ibarra. 95 m²-ko etxebizitza, oso eguzkitsua, kanpoaldera begira. Ikuspegi ederra.

Ibarra. 75 m²-ko etxebizitza salgai. Lehenengo pisua; kanpoaldera.

Ibarra. 75 m²-ko pabilioia eta 2.500 m²-ko lur saila salgai. Nekazal ustiapenerako egokia.

Lizartza. 14.000 m²-ko pabilioiak salgai, 300, 450, 625 eta 900 m²-ko moduluetan, eraikuntza berrikoak.

Tolosa. Agintari kalean 75 m²-ko eraikuntza berriko etxea salgai.

Tolosa. Gernikako Arbolan, 155 m²-ko etxebizitza salgai, kanpoaldera, berritzeko.

Tolosa. Gudari kalean, Samaniego kalearekin iskinean, 110 m²-ko etxea, kanpoaldera, eguzkitsua, igogailua.

Berritzeko premia.

Tolosa. San Frantzisko kalean, erabilgarriak diren 51 m²-ko apartamentua salgai.

Tolosa. Amaro; 115 m²-ko etxebizitza. Igogailuarekin. Berritzeko.

Tolosa. Lokal komertzialak, salmantan edota alokairuan.

LEITZA ▶ KIROLA



Mendian ibiltzeko iparrorratza erabiltzen ikastea beti da mesedegarria, zer gerta ere. JAIONE ASTIBIA

Orientazio ikastaroa asteburuan

Izena bihar baino lehen eman behar dute parte hartu nahi dutenek

JAIONE ASTIBIA

Mendibil mendi taldeak orientazio ikastaroa antolatatu du asteburu honetarako: larunbata eta igandea ere horretarako baliatuko dituzte.

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, «eskolak» goiz osokoak izanen dira, 9:00etan hasi eta

14:00ak arte, eta horiek teoriakoak ez ezik praktikoak ere izanen omen dira. «Lehendabiziko eguna argibideak eta arlo teorikoa lantzeko baliatuko dituzte, iparrorratza erabiltzeko oinarritzko pautak zein diren agertuz eta ariketa tikiak eginez», adierazi dute. Hori larunbatean egingen dutena. Bihara-

munean, berriz, mendira joan eta bezperan ikasitako praktikan jartzeko aukera ez ezik, egin beharra ere izanen dute parte-hartzaileek. «fropa praktikoa Leitzako mendietan egingen da. Leku batera joan eta iparrorratzaz eta orientaziorako oinarritzko ezagutzetaz baliatuz soilik, helmuga batera iritsi beharko da», baitzioten Mendibilekoek.

Amaia Elosegiz izanen da irakasle, mendizale trebe eta bidaiari porrokatua bera. Horrela ikastaroan parte hartu nahi duenak, interesa duen guztientzat bideratutakoa izanik, iparrorratza eraman beharko du derrigorrez, ez besterik, eta noski, izena emana izatea ere bai, bistan denez. Hori Maimur edota Astiz liburudendetan egin daiteke, hilak 16, osteguna baino lehen. Bazkideek doan izanen dute iastaroa. Gainerakoek, 5 euroko kuota ordaindu beharko dute.

ARESO ▶ UDALA

Herriko sarrera itxita egonen da

Gaur 11:00etatik aurrera, herriko sarrerako errepeidea erabat itxita egonen da eskolako parean, bertan egin asmo dituzten lanetarako muntatu behar duten garabia jartzen ari diren bitartean. Lan horretan hiru-lau orduz ariko omen dira, Udaletik jakitera eman dutenez. Horrela, bada, herritik ateratzeko autoa hartu beharrean direnei, goizago egiteko aholkatzen diete bertatik, edota herrira etorri behar dutenentzat, berriz, Patxikune aldean aparkatzeko eskaria egin dute, «goiena ere 100 metro dira eta oinez egin beharrekoak», erantsiz. Edozein moduz, arratsalderako jada irekiko omen dute errepeidea. Garai horretan ibilgailua hartzea nahitanahiezkoa bada, saihasbidean adi ibiltzea komeni da.

LEITZA ▶

Txan magoa zineman izanen da gaur

Gaur asteazkena, 19:00etatik aurrera Txan magoaren saio ikusgarria izanen da herriko zinema aretoan. Bertara joan diren haurrek eta euren aitzakian laguntzaileek ere bai noski, Txanen magia-jokoz eta asmakizunez ez ezik, ezkutaketarako duen trebeziatz gozatzeko aukera izanen dute, besteak beste. Ekitaldi hau Leitzaldeko Euskara Zerbitzuak antolatatu du, UEMA-ko Kultur Elejira delako egitarauaren baitan, «Udalerrri euskaldunen kultur zirkuitua» osatzeko.

LEITZA ▶

'Basetxea'-ko finalista izan daiteke Rieño

ETB-ko *Basetxea* programan parte hartzen aritu den Diego Rieño leitzarra finalista izan daiteke hurrengo astean, bertan 40 egun igaro eta gero. Astelehen gauean emittitu zuten atalean, dagoeneko saria eskuratzeko aukera izanen omen dute hirutik bi finalista erabaki zituzten. Baina hirugarrena ikusleen esku utzi zuten, hots, aste honetan zehar telefonoz bozka gehien eskuratzan dituen igaroko omen da. Deitu nahi izanez gero, orain badago horretarako aukera ere.

LEITZA ▶ EHNA

Tramitazio eguna da larunbatean

Larunbat honetan, hilak 18, eta 11:00etatik 14:00ak bitartean, EHNAREN tramitazio eguna egingen dute Leitzako udaletxeko batzar aretoan. *IZEHNA eta izana* leloari eutsiz, euskal naziotasun aitormena egitera dei egin dute ekimen horren bulkatzaileek, bide batez, agiriaren tramitaziorako beharrezko diren dokumentuak zein diren ere jakitera emanez. Horrela, 15 euro ordaintzeaz gain, 3 argazki berri eta errolda-agiria dira eraman beharrekoak. Han bertan aitormena sinatu eta bi hilabeteko epean, etxean jasoko omen da agiria. Bestalde, azken txandan tramitatutako agiriari, arazo batzuk tarteko atzerapena zekartenak, jada iristen ari direla ere eman dute jakitera.

hitza

txokoa^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratu dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

SHANTY KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko abenduaren 15a, asteazkena ▶ II.urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kaltetzaletza, Adura, Abotzur, Alegia, Alkiza, Alzco, Amerieta, Ansoa, Balaizola, Beldarria, Berastegi, Etxebarri, Herrialde, Ibarra, Inura, Lantzi, Leizorri, Luzeola, Oñativia, Oñeta, Tolosa, Villabona, Zuzenbidea
besteriak: Leizaldeko Euzkara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurjaritza.
Kultura Salla

943
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALAREN



Guardetxe:

gaur: ez / bihar: ez

Pagomari:

gaur: ez / bihar: ez

AGENDA ▶

HITZALDIAK

Ikaztegieta. Menpekotasuna duten pertsonen zaintza kiroldegian 16:30ean.

Tolosa. Iñaki Olarreaga botikaria: *Sendabelarrak eta sendagai generikoak.* Lurreamendi egoitzan 16:30ean.

Tolosa. Joxe Manuel Odriozola altzotarra: *Euskalgintzako hainbat iritzi.* Bihar, 19:30ean, udaletxeko batzar aretoan.

DEIALDIAK

Alto. Olentzerotan Jakinminez zikloan, Loatzo musika eskolako ikasleen emanaldia Lizarbe etxepeko gelan 18:30ean.

Ibarra. Uzturre Ikastolako batzarra: Lehendakariaren aurkezpena, batzorde ezberdinetako informazioa... 20:00etan, Ikastolan.

Ibarra. Zure enpresaren webgunea sustatu eta hazi ikastaroa KZgunean, 18:00etatik 20:00etara.

Ibarra. Merkatu txikia parrokiako lokaletan. 11:00-13:00 eta 17:00-20:30.

Ibarra. Zer nolako herria nahi dugu herritarrok? gaiaz mahaingurua. 19:00etan Gaztebeian.

Ibarra. AHTak ingurunean eragingo dituen kalteak eta onurak izango dira aztergai bihar Gaztebeian; 19:30ean. 22:00etan, *Generación robada* filma.

Tolosa. Kirmen Uriberen literatura saioa Kultur Etxeko 2. solairuan; 20:00etan.

Tolosa. Agenda 21eko aholku batzordearen bilera, udaletxean. 19:30ean.

Villabona. Orain bakea, orain herria egitasmoaren aurkezpena, Juan Joxe Petrikorenaren eskutik. 20:00etan, Kultur Etxean.

IKUSKIZUNAK

Alegia. Jaizkibelgo superportuari buruzko ikus-entzunezkoa bihar 21:00etan Gaztebeian eta ondoren hitzaldia.

Leizta. Txan magoaren erakustaldia zineman. 19:00etan.

ZINE-KLUBA

Tolosa. *Memories of murder* filma Leidor zineman. Bihar, 21:30ean.



Ordezkarri ugari gerturatu dira amaierako ekitaldira. O.ESKITXABEL



Ainhoa Etxabe, Villabonako Udaleko zinegotzia, ziurtagiria ematen. O.E.

Lanean hasteko prest

VILLABONA ▶ Atzo eman zieten amaiera enplegu tailerrei; hogeiki ikasle aritu dira urte betez adineko pertsonekin eta basozaintzan lan egiteko prestatzen



Ziurtagiriak banatu ondoren, *luncha* egin dute ikasleek, irakasleek zein ordezkariak. O.ESKITXABEL

OLAIA ESKITXABEL

Urtebete eta gero, atzo amaitu ziren Villabonan martxan jarri ziren enplegu tailerrak. Geriatriako laguntzaile eta basozain edo lo-rezain laguntzaile izateko ikas-ten eta lanean aritu dira tailerretan izena emandako 20 lagunak.

Ekitaldiari hasiera emateko hitz batzu luzatu zituen Pedro Ustarrozek, INEMeko zuzendari probintzialak; ikasleei, enplegua bilatzeko bidea «nahiko erraza» izango dutela azaldu zien; horrekin batera, «ezinbestekoak izaten ikasteko» gomendioa luzatu zien. Idoia Urkolak, enplegu tailerretako koordinatzaileak hartu zuen hitza jarraian: «Orain dela urtebete jarritako helburuetako bat tailerrak balioagarriak izatea zen; eta irakasleen eta ikasleen esfortzuarekin hori posible izan dela esan dezakegu». Eskualdeko beste hainbat ordezkari ere gerturatu ziren ekitaldira.

Ziurtagiriak banatu ondoren; *luncha* egin zuten.

ZORION AGURRAK ▶



ZORIONAK
Iñigo Arruabarrena Karrera.
Gaur hiru urte. Zorionak guraso eta familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!